

**4/2018 TXOSTENA, APIRILAREN 11KOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURAKOA****XEDEA: EAE-KO KOOPERATIBEN LEGEAREN PROIEKTUA****I.- AURREKARIAK**

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuari buruzkoak, 10.23. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoari egozten dio Kooperatiben, Gizarte-segurantzian integratuta ez dauden Mutualitateen eta Kofradien inguruko eskumena, merkataritza-arloko legedia orokorrarekin bat.

Ekainaren 24ko 4/1993 Legeak, Euskadiko Kooperatibei buruzkoak (aurrerantzean, 4/1993 Legea), lege-forma eman zion eskumen horri, kooperatibei dagokienean.

Ondoren, martxoaren 29ko 58/2005 Dekretuak, Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzen duenak (58/2005 Dekretua) aipatutako Legearen araugarapen orokorra egin zuen.

Eta gai horri ondorengo zenbait erregulaziok ere eragin diote:

- Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolamendu eta funtzionamenduari dagokionez, martxoaren 29ko 59/2005 Dekretua.
- Otsailaren 2ko 64/1999 Dekretua, herri onurako kooperatiba-sozietateei dagozkien prozedura eta betekizunen erregelamendua onartu zuena.
- Apirilaren 4ko 61/2000 Dekretua, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituena.
- Uztailaren 16ko 27/1999 Legea, Kooperatibei buruzkoa (Estatukoa).
- Uztailaren 9ko 22/2003 Legea, Lehiaketei buruzkoa (Estatukoa).
- Ekainaren 25eko 6/2008 Legea, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzkoa.

- Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina onartzen duena (Kapital Sozietateen Legea).

Bestalde, azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak, Lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzeari eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeari buruzkoak, 16.1.b) artikuluan, Lan eta Justizia Sailaren funtzio eta jarduera-esparruen artean jasotzen du «ekonomia soziala:kooperatibak, lan-sozietate anonimoak eta elkartasun-ekonomia».

Azkenik, Lan eta Justizia Sailaren Egitura organiko eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuak, 10.e) artikuluan, ezartzen du Ekonomia Sozialaren Zuzendaritzari dagokiola «legegintza-esparruko berrikuntzak eta Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen aldaketak sailburuari proposatzea, sektorearen funtzionamendua hobetzeko».

Lege-proiektu honen helburua aipatutako araudietan barreiatuta dauden eta lege-maila izan beharko luketela jotzen den gaiak testu bakarrean bat egitea da, orobat «arrazoi eta soluzio juridikoaren harmonizazioa, batez ere terminologikoa eta nortasunekoa, kasu batzuetan; eta, beste kasu batzuetan, aplikatzeko orduan zehaztasun-falta ager dezaketean edo zalantzak sor ditzaketean arau-elementuak azaltzea». Hala bada, testuak ez du aldaketa esanguratsurik ekarriko lehendik dagoen erregulazioarekiko.

II. – ALDEZ AURREKO GOGOETAK

TXOSTENA EMATEKO ESKUMENA

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 11. artikuluan xedatzen du nahitaezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak izapide hori arautzen duten xedapenek ezarritako unean eta eran eskatuko direla.

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak erreferentziazko arauaren proiektuari buruzko txostena emateko eskumena du, eragina duelako



kontratazio publikoan, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazio-erregimenari buruzkoa) 27. artikulua a) letrako 1. zenbakian xedatutakoarekin bat:

«27. artikulua.- Aholkularitza-eginkizunak.

Aholkularitza-eginkizuna betetzean, hauek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

a) Honako hauei buruz nahitaez informatzea:

1.- Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak.»

Xedapen-proiektua denez eta ez denez horren xedea sektore publikoko erakundeak sortzea edota Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen egitura organiko eta funtzionalak arautzea, 116/2016 Dekretuaren 30. artikuluaekin bat, txostena onartzeko eskumena Aholku Batzordearen Osoko Bilkurari dagokio.

III. – EDUKIA

Legearen proiektuak 4 titulu, 15 kapitulu eta 18 atal ditu, eta, azken zatian, 7 xedapen gehigarri, 2 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta 5 azken xedapen.

IV.- OHAR JURIDIKOAK

Nabarmentzekoak dira proiektuaren artikulua eta, txosten honetan aztertu beharrekoari dagokionez, aipatzekoak dira jarraian ageri diren artikuluetan jasotzen diren kontratazio publikoaren erreferentziak:

- 8. artikuluko honako atal hauek aipatuko ditugu, kontratazioan efekturik ez dutela azaltzeko:



«2.- Euskadiko Kooperatiba Erregistroan inskribatu aurretik sozietatearen izenean egintzak gauzatu eta kontratuak egin dituztenek izango dute horien erantzukizun solidarioa, salbu eta egintza edo kontratu horien efikazia dagoenean inskripzioaren eta, hala badagokio, sozietateak egintzok bere gain hartzearen baldintzapean.

[...]

4. Kooperatiba inskribatuta, berak egin beharko die aurre aurreko apartatuan aipatzen diren egintza eta kontratuei. Orobat egin beharko die aurre inskribatu eta hurrengo hiru hilabeteetan onartzen dituen egintza eta kontratuei. Bi kasu horietan, bertan behera geratuko da sustatzaile, kudeatzaile edo agintarien erantzukizun solidarioa.»

Prebentzio horiek baliozkoak dira, izan ere, kooperatiba eratzeko edo inskribatzeko xedearekin egindako edo sinatutako izaera pribatuko ekintza eta kontratuei dagozkie; hortaz, kontratuei buruzkoak izan arren, ez dute efekturik izango kontratazio publikoan.

- II. Tituluko I. Kapituluari, kooperatiba motei buruzkoan, eta 2. Atalaren barruan (lan elkartuko kooperatibak), honako erregulazio hau jasotzen du 103. artikuluko 4. apartatuak:

«4. Lan elkartuko kooperatiben helburua bazkideei enplegu ematea eta haiek lan egitea da. Hala eta guztiz ere, kooperatibek besteren konturako kontratuak ere egin ahal izango dituzte, baina kontratu horiek inoiz ezin izango dute gainditu bazkide langileek urtean egiten dituzten orduen 100eko 30. Enpresako premia objektiboak direla-eta, portzentaje hori gainditu ahal izango da, baina hiru hilabeteetan baino ez. Epe hori luzatzeko, baimen arrazoitua eskatu beharko zaio Eusko Jaurlaritzan enplegu-arloko eskumena duen sailari. Sail horrek hamabost eguneko epean ebatzi beharko du, eta, isiltasuna gertatzen bada, baimena onartutzat joko da.

Portzentaje horretan ez dira zenbatuko:

[...]

- i) Kooperatibak administrazioarekin edo nagusiki administrazio publikoen partaidetza duten enpresekin, partzuergoekin, fundazioekin eta gainerako

entitateekin duen kontratuaren ondorioz lanean hasten diren langileak.

[...]»

Artikulu beraren 9. apartatuan:

«9. Kooperatiben uztailaren 16ko 27/1999 Legearen 86.2 artikulua arabera, lan elkartuko kooperatiba batek bertan behera uzten badu zerbitzu-kontrata edo administrazio-emakida bat berari egoztekoak ez diren arrazoiengatik eta beste enpresaburu bat egiten bada haren kargu, kontrata edo emakida horretan lanean diharduten bazkide langileen eskubideak izango dira: indarrean den araudiaren arabera, besteren konturako langileek kooperatiban dituzten eskubide berak.

Aurreko paragrafoan azaltzen den egoeran dauden langileak lehentasun-eskubidea izango dute, bost urtean, jatorrizko kooperatibara itzultzeko, baldin eta lanpostu berririk sortzen bada eta lanpostu berriak haien lanpostuak zuen eduki bera edo antzekoa badu.»

Xedapen horiek ez diotenez berez kontratazio publikoari eragiten, baizik eta efektuak horrekin batera doazen Lan- eta Merkataritza-Zuzenbidearen harira dituztenez, baina inolako betebeharririk ezarri gabe, badirudi ez dagoela eragozpenik proposatzen den idazketan. Edozelan ere, kontuan hartu behar da Sektore Publikoko Kontratazioaren Legean subrogazioari buruz esaten dena, kooperatibak zuzenean aipatzen dituen:

«130. artikulua. *Lan-kontratuak subrogatzeko baldintzei buruzko informazioa.*

1. Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batek lan-harreman jakin batzuetan esleipendunari enplegatzaileri gisa subrogatzeko betebeharra ezartzen dionean, kontratazio-organoak lizitatzailerari eman beharko die, agirian bertan, subrogazioak eragiten dien langileen kontratuetako baldintzei buruzko informazioa, hau da, neurri horrek ekarriko dituen lan-kostuen ebaluazioa ahalbidetzeko beharrezkoa den informazioa. Halaber, jakinaren gainean jarri behar da informazio hori artikulu honetan aurreikusitakoa betetzeko eskaintzen dela.



Ondorio horietarako, esleitu beharreko xedea ematen ari den enpresa, eragindako langileen enplegatzaile izaera duena, behartuta dago aipatutako informazioa kontratazio-organoaren esku jartzera, hark eskatuta. Informazio horren zati gisa, edozelan ere, subrogazioaren xede diren langileen zerrendak aurkeztu behar dira, honako hauek adieraziz: aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa eta kategoria-xehetasunak; kontratu mota; lanaldia; antzintasuna; kontratuaren iraungipena; langile bakoitzaren urteko soldata gordina; eta subrogazioak eragindako langileei aplika dakizkiekeen indarreko itun guztiak. Administrazioak enpresari berriari jakinaraziko dio aurreko kontratistak eskainitako informazioa.

2. Artikulu honetan langileen subrogazioari buruz xedatzen dena ere aplikagarri izango zaie kooperatibetako langile bazkideei, horiek subrogazioaren xede den zerbitzu edo jarduerara atxikita daudenean.

Esleitu beharreko kontratuaren xede den prestazioa ematen duen enpresa Enplegu Bereziko Zentroa denean, enpresa esleipendunak aipatu kontratua egikaritzen jarduten duten pertsona desgaitu guztien enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra du.»

Hau da, ezerk ez du eragozten lege-arau batek pertsona langileen subrogazioa inposatzerik, betiere, Laneko Zuzenbidearen mugen eta kontratuen berezko legediaren barruan.

- Aipatu dugun II. Tituluko I. Kapituluko 12. atalean, Gizarteratze- eta laneratze-kooperatibei buruzkoan, hemen transkribatu beharreko bi artikulu jasotzen dira:

«133. artikulua. Gizarteratze-kooperatibak.

1.- Batez ere, dibertsitate funtzional fisikoa, psikikoa edo zentzumenezkoa duten pertsonak eratuko dituzte gizarteratze-kooperatibak, eta lan elkartuan oinarritu ahal izango dira bazkideek egindako produktu eta zerbitzuak antolatu, bideratu eta merkaturatzeko edo orokorrean edo espezifikoki kontsumitzen diren ondasun eta zerbitzuak eskaintzeko.

2.- Edozein gizarte-zerbitzu ematen duten entitate publikoek parte hartu ahal izango dute, bazkide gisa, gizarteratze-kooperatibetan, dagokien ekarpena eginez eta entitate publikoen ordezkari bat izendatuz. Ordezkar horrek,

kooperatibako gainerako bazkideekin batera, lan egingo du laguntza teknikoa, profesionala eta soziala emateko; sozietatearen organo guztietako bileretara joango da, eta botoa izango du haietan.

3.- Gizarteratze-kooperatibek besteren konturako kontratuak egin ahal izango dituzte izaera bereko taldeekin, beste enpresa batzuek egiten dituzten baldintza beretan; dena den, kooperatiba hauei ez zaizkie aplikatuko lege honen 103. artikuluko 4. apartatuan lehenengo paragrafoak langile horiei ezartzen dizkien mugak.

134. artikulua.- Laneratze-kooperatibak.

1.- Laneratze-kooperatiben helburua da: ondasunak eta zerbitzuak sortzeko edozein jarduera ekonomiko garatuz, gizartean bazterturik dauden pertsonak prestatzea, gizarteratzea eta laneratzea pertsona horiek ohiko lan merkatuan sar daitezen.

2.- Laneratze-kooperatibek besteren konturako kontratuak egin ahal izango dituzte izaera bereko taldeekin, beste enpresa batzuek egiten dituzten baldintza beretan; dena den, kooperatiba hauei ez zaizkie aplikatuko lege honen 103. artikuluko 4. zenbakiko lehenengo paragrafoak langile horiei ezartzen dizkien mugak.»

Hemen aipatzekoa da Enplegu Zentro Bereziek desgaitasuna duten pertsonak eta gizarteratze-enpresak laneratzen egiten duten lana, orobat enplegu babestuko programak, Sektore Publikoko Kontratazioari buruzko Legearen laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat, edota zenbait erakunderen gizarte-, kultura eta osasun-zerbitzuen kontratu jakin batzuen erreserba, Sektore Publikoko Kontratazioari buruzko Legearen berrogeigarren xedapen gehigarriarekin bat. Horretan guztian, kontuan hartu behar da desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu bateginaren erregulazioa (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak eta gizarteratze-enpresen erregimena arautzeko abenduaren 13ko 44/2007 Legeak onartua).

Hartara, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategineko 43. artikulua honako hau dio:



«4. Gizarte-ekimeneko Enplegu Zentro Berezizat hartuko dira artikuluko honetako 1. eta 2. apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak eta ehuneko 50ean baino gehiagoan, zuzenean edo zeharka, erakunde baten edo gehiagoren partaidetza eta sustapena dutenak, erakunde horiek publikoak edo pribatuak izan, betiere, ez badute irabazi-asmorik edo Estatutuaren izaera soziala onartuta badute; horiek elkarteak, fundazioak, zuzenbide publikoko korporazioak, gizarte-ekimeneko kooperatibak edo ekonomia sozialeko beste erakunde batzuk izan daitezke, baita gizarte-kapitalaren zati handiena lehen aipatutako erakundeetako baten jabetzakoa den (zuzenean edo zeharka, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan araututako sozietate nagusiaren kontzeptuaren arabera) merkataritza-sozietateak titulartzat dituztenak, betiere, edozein kasutan, Estatutuaren edo gizarte-akordioan ezartzen bada irabazi guztiak berriro inbertitu behar direla desgaitasuna duten pertsonen enplegu-aukerak sortzen eta horien lehiakortasuna eta ekonomia sozialeko jardura etengabe hobetzen, edozelan ere, enplegu-zentro berezian bertan edota gizarte-ekimeneko beste enplegu-zentro berezi batzuetan berriro inbertitzeko aukera mantenduz.»

Hortaz ez dago eragozpenik Lege Proiektuaren 133. eta 134. artikuluetan aipatutako kooperatibek funtzio hori bete dezaten, adierazten den eta txosten honen azterketa-esparruaren barruan sartzen ez den araudiarekin bat. Aipatzekoa da Gobernu Kontseiluaren 2018ko martxoaren 13ko Akordioa, kontratu erreserbatuei buruzko jarraibideak onartzen dituenak; halako kontratuen helburuak, besteak beste, mota honetako kooperatibei erreserbatutako kontratuen bitartez lortu daitezke.

Ondoren, Proiektuaren III. Tituluan, «Kooperatibak eta Administrazioa» jorratzen dira.

146. artikuluan («Kooperatibagintza sustatu eta zabaltzeko neurriak») kontratazio publikoari buruzko erreferentzia zuzenak daude, hain zuzen ere:

«2.- Bereziki, honako sustapen-neurri hauek hartuko dituzte:

[...]

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoek eta horien mendeko



erakundeek, administrazioaren baldintza-orrietan jasotzen diren berdinketa hausteko irizpideen artean, lan-, zerbitzu- eta hornidura-kontratuen esleipenean kooperatiba-sozietateak lehenestea sustatuko dute, sektore publikoko kontratuei buruzko legediarekin bat.

[...]

g) Beren xede soziala betetzeko, etxebizitza-kooperatibek kudeaketa publikoko lursailak erosi ahal izango dituzte zuzeneko esleipen-sistemaren bidez.

[...]

i) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak neurriak hartuko ditu kooperatiben presentzia kuantitatiboa eta kualitatiboa sustatzeko hainbat sektoretan; esate baterako, landa-garapenean, mendekotasunean, gizarteratze-sektorean eta laguntza-jardueretan. Horretarako, bere eskumenak erabili, eta kooperatibek kontratazio publikoko prozeduretan parte hartzea sustatuko du.»

Aipatutako d) letrari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 147.1. artikulua aitortzen du baldintza-orrietan jasotzen diren berdinketa hausteko irizpideen artean -betiere, kontratuaren xedearekin lotura badute- jaso behar direla «abenduaren 13ko 44/2007 Legean, gizarteratze-enpresen erregimena arautzeko buruzkoan, arautzen diren gizarteratze-enpresak, arautegi horretan izaera hori izateko ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte» (eta, horretarako, lan elkartuko kooperatiben, eta bigarren mailako edo ondorengo mailako enpresen izaera aztertuko da, bereziki, halako enpresetan txerta badaitezke; dena den, hori ez dagokio Batzorde honi). Kontratazio-organoak irizpide hori baldintza-orrietan zehaztu dezake, atalean eskaintzen diren irizpideetako bakar bat gisa. Gainera, 2. apartatuan, zenbait irizpide ezartzen dira modu subsidiarioan, kontratazio-organoak baldintza-orrietan 1. apartatuko irizpiderik zehazten ez duen kasuetarako.

g) letrari dagokionez, etxebizitza-kooperatibek beren gizarte-helburuak betetzeko kudeaketa publikoko lursailak erosteari dagokionez, «zuzeneko esleipena» aipatzen denean, testuak bat etorri behar du Sektore Publikoko Kontratazioaren Legeko 9. artikuluekin. Artikulu horretan honako hau jartzen du:

«9. artikulua. *Jabari publikoaren arloan eta ondarearen arloan salbuetsitako harreman juridikoak, negozioak eta kontratuak.*



1. Lege honetatik salbuetsita geratzen dira 14. artikuluan zehaztutakoez bestelako jabari publikoko ondasunei buruzko baimenak eta emakidak eta ondare-ondasunen ustiapeneko kontratuak. Berariazko legediaren bidez arautuko dira kontratuok, lege honetako aginduak berariaz aplikatu behar direla adierazten den kasuetan izan ezik.

2. Halaber, Lege honetatik salbuetsita geratzen dira ondasun higiezin, balore negoziagarrien eta jabetza gorpuzgabeen gainean egindako salerosketa, dohaintza, truke eta errentamenduko kontratuak, ez badira ordenagailuko programen gainean erortzen eta hornidura- edo zerbitzu-kontratu gisa kalifikatu behar, beti kontratu pribatuen izaera izango baitute, eta ondare-legediaren bidez arautuko baitira. Kontratu horietan Hasierako Idazpuruaren II. Kapituluaren 1. Atalean arautzen diren ohiko kontratuetako berezko prestazioak bakarrik txertatu ahalko dira, ez badute prestazioen balio estimatuek negozioaren guztizko zenbatekoaren % 50 gainditzen, edo ez badute ondare-kontratuaren funtsezko prestazioarekin atxikitze edo osagarritasun harremanik mantentzen, 34.2. artikuluan aurreikusten den moduan.»

Hortaz, ez da oztoporik ikusten kontratazio publikoaren legeditik kanpo izapidetzeko (horrek zuzeneko esleipena ahalbidetuko luke), baina bete egin beharko dira, batetik, kontrataziorako erkidego-printzipioak eta, bestetik, ondare-legediak arlo horri buruz xedatzen duena. Halaber, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren Ondare Arloko txostena eskatu denez, hark bere iritzia emango du.

i) letrak nahitaezko izaera du, baina lausoa da; hortaz, zaila izango da kontratazio publikoko baldintza-orrietan, zirkularretan edo gomendioetan islatzea. Edozelan ere, kontratazio publikoko prozesuetan parte hartzea, gardentasun eta lehia askearen printzipioekin bat, eta Sektore Publikoko Kontratazioen Legea diseinatuta dagoen moduan, ez da oztopatzen; are gehiago, mesedetu egiten da, publizitaterik behar ez duten kontratuak nabarmen murrizten direlako eta ETEen aldeko neurriak daudelako (kooperatiba askok izaera hori dute).

Baina horiek ez dira 146. artikulua kontratazio publikoari buruz egiten dituen aipamen bakarrak. Hala, 3 atalean:

«3.- Euskal Autonomia Erkidegoko aginte publikoek kooperatibak sortzea eta haiek zerbitzu publikoen kudeaketan parte hartzea bultzatuko dute, zerbitzu publikoak

garatzeko eta hobetzeko.

Ildo horretan, botere publikoek aurreikusi ahal izango dute, kalitateko zerbitzu publikoak bermatzeko, zerbitzu publikoko kooperatiba-sozietateak eratzea zerbitzu publiko horiek emateko, kontratazio publikoko araubidea erregulatzen duten legezko eta erregelamenduzko xedapenen arabera; zerbitzu horietatik kanpo utziko dira agintaritza publikoa erabiltzea eskatzen duten zerbitzu publikoak. Kooperatiba-sozietate horietan, bazkide sustatzaile modura parte hartuko dute eskumena duten entitate publikoek, baita, hala badagokio, sektorean esperientzia dutela erakusten duten entitate pribatuak ere; era berean, kooperatibaren xede sozialaren parte diren zerbitzuen erabiltzaileak eta sozietatean lan egiten duten bazkide langileak ere parte hartu ahal izango dute. Nolanahi ere, entitate publiko sustatzaileak kontrolatuko dituzte zerbitzu publikoak emateko baldintzak».

Nabarmentzekoa da, Sektore Publikoko Kontratazioaren Legearekin, zerbitzu publikoen kudeaketako kontratu-figura desagertu egiten dela eta, horren ordean, zerbitzuaren emakida, edo zerbitzuen emakida, erabiltzen dela, hurrenez hurren, arriskua transmititzen den ala ez kontuan hartuta. Nolanahi ere, lehen paragrafoan ageri den «zerbitzu publikoen kudeaketan parte hartzearen» kontzeptua jasotzen da.

Baina, lehen bezala, erabaki behar da kooperatibek gainerako operadore ekonomikoekiko berdintasun-baldintzetan parte hartu behar dutela, eta zerbitzu publikoak kudeatu egin behar direla, prozesuetan parte hartzeko baldintzak betetzen diren heinean eta eskaintza onena aurkezten duten heinean.

Era berean, zerbitzu publikoen kooperatibak eratzean, nahiz eta berez oztoporik ez egon, horien zati izango diren eta «sektorean esperientzia egiaztatua duten erakunde pribatuak» aukeratzeko moduaren arazoa dago. Hain zuzen ere, «bat etorri behar du kontratazio publikoko printzipio orokorrekin», baita horien araudiarekin ere, eta horrek ez dirudi erraza. Jakina, «sozietateari beren lan pertsonala eskaintzen dioten pertsona langile bazkideek» berdintasun-, meritu- eta gaitasun-baldintzetan laneratu behar dute, langile-kontratazioko jarduketa publiko guztietan gertatzen den moduan; baina hori beste gai bat da eta dagokion txostena egin behar duen pertsonaren eskumenekoa da.

Artikuluaren azken hitz-tarteak honako hau dio: «Edozelan ere, erakunde publiko sustatzaileek kontrola mantenduko dute zerbitzu publikoak eskaintzeko baldintzei



dagokienean». Hori pixka bat lausoa da berriro ere eta, horrez gain, kontrol-mekanismo egokiak antolatzea eskatzen du, hala badagokio, kooperatiba publiko-pribatua izan baliteke.

Hori Lege Proiektuaren 147. artikularekin lotuta dago; hain zuzen ere, horretan, « Eusko Jaurlaritzan lan-eskumena duen sailari dagokio ikuskaritza-funtzioak betetzea lege hau garatzeko, hargatik eragotzi gabe Eusko Jaurlaritzako sailek edo beste administrazio publiko batzuek ere funtzio horiek bete ahal izatea norik bere eskumenen arabera.»

Azkenik, 154. artikularen 1. apartatuak adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Goi Kontseilua «euskal administrazio publikoentzako kontsulta- eta aholku-izaerako erakunde publiko gisa eratzen dela, kooperatibismoari eragiten dioten gai guztietarako». Paragrafoan honako hitz-tarte hau txertatzea iradokitzen da:

«... Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari kontratazio-arloan dagozkion ahalmenei eragin gabe».

Komenigarritzat jotzen da autonomia-erkidego honetako beste kontsulta-organo batzuei dagozkien eskumenei buruzko zehaztapena ere egitea.

V.- ONDORIOAK

Hori guztia esanda, Legearen proiektuaren aldeko txostena ematen da.